

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Iragarkia

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, finko eta behin betikoa egin da, 2025eko abenduaren 23ko Udal osoko bilkurak hartutako hasierako erabakia, hain zuzen Dirulaguntzak Ematea Arauzen Duen Udal Ordenantzaren aldaketaren onarpena.

Aipameneko araudiaren testua bateratua argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Astigarraga, 2026ko otsailaren 13a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (1081)

Dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantza.

— Aurkibidea.

Zioen azalpena.

Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Helburua.

2. artikulua. Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpoko laguntzak.

3. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

4. artikulua. Dirulaguntzen izaera.

Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa.

5. artikulua. Irizpide orokorrak.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

8. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

9. artikulua. Aurrekontua kontsignatzea.

10. artikulua. Finantzazioaren muga, bateragarritasuna eta aldebereotasuna beste dirulaguntza batzuekin.

11. artikulua. Deialdi ireki edo publiko bidez ematea.

12. artikulua. Zuzeneko dirulaguntzak.

13. artikulua. Onuradunak.

14. artikulua. Organo eskuduna.

15. artikulua. Prozeduraren hasiera.

16. artikulua. Eskaerak.

17. artikulua. Akats zuzentzea.

18. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Anuncio

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación, ni observación alguna, se ha elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado en sesión plenaria celebrada el 23 de diciembre de 2025 sobre la modificación puntual de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones.

Se procede a la publicación del texto refundido de la referida ordenanza.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 13 de febrero de 2026.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (1081)

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones.

— Índice.

Exposición de motivos.

Disposiciones generales.

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Ayudas excluidas del ámbito de aplicación de la presente ordenanza.

Artículo 3. Normativa aplicable.

Artículo 4. Carácter de las subvenciones.

Procedimiento y gestión de las subvenciones.

Artículo 5. Principios generales.

Artículo 6. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.

Artículo 7. Cuantía de las subvenciones.

Artículo 8. Gastos subvencionables.

Artículo 9. Consignación presupuestaria.

Artículo 10. Límite de la financiación compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones.

Artículo 11. Concesión mediante convocatoria pública.

Artículo 12. Concesión directa.

Artículo 13. Beneficiarios/as.

Artículo 14. Órgano competente.

Artículo 15. Iniciación del procedimiento.

Artículo 16. Solicitudes.

Artículo 17. Subsanción de defectos.

Artículo 18. Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.

19. artikulua. Norgehiagokako dirulaguntzen instrukzioa eta ebazpena.

20. artikulua. Deialdi publiko bidez ematen diren baina norgehiagokaren mende ez dauden dirulaguntzen instrukzioa eta ebazpena.

21. artikulua. Zuzeneko dirulaguntzen instrukzioa eta ebazpena.

22. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzen ordainketa.

23. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketak eta ordainketa aurreratuak.

Dirulaguntzaren zuriketa.

24. artikulua. Zuriketa.

Aurrekontuak kudeatzeko prozedura.

25. artikulua. Gastua eta ordainketa onartzeko prozedura.

Dirulaguntzen itzultzea.

26. artikulua. Itzulketa.

27. artikulua. Itzulketa prozedura.

Zehapen araubidea.

28. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua.

29. artikulua. Zehapen prozedura.

30. artikulua. Zehapenak.

31. artikulua. Aldiberekotasuna prozesu penalarekin.

32. artikulua. Aldiberekotasuna beste zehapen-espedienteekin.

33. artikulua. Kalteak ondasun publikoetan.

Publizitatea.

34. artikulua. Publizitatea. Udalaren eta onuradunen betebeharrak.

Interpretazioa.

35. artikulua. Interpretazioa.

Helegiteak.

36. artikulua. Helegiteak.

Xedapen indargabetzailea.

Azken xedapena.

I. eranskina. Astigarragako Udalak dirulaguntzak egiaztatze-ko dokumentu baimenduen zerrenda.

ZIOEN AZALPENA

Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko modernoan ezin ukatuzkoa da dirulaguntzek duten garrantzia, eta edozein administrazioen gizarte- eta ekonomia politikan erabakigarria den tresna baten aurrean gaudela esan daiteke.

Astigarragako Udalak hainbat laguntza- eta dirulaguntza-lerro ditu.

Ikuspegi ekonomiko batetik, dirulaguntzak gastu publikoaren mota garrantzitsu bat lirateke, eta horregatik, aurrekontu politikaren norabideetara egokitu behar da.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorreko zat jotzen diren jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira.

Zentzu zabalean, dirulaguntza izaera juridiko eta ekonomiko anitzeko figura-multzoa barne hartzen duen kategoria bat da, eta horregatik jarraipen eta kontrol eraginkor bat egin behar zaio.

Diru-laguntzen kudeaketa eta jarraipena hobetzea, arau-ga-beziak zuzentzea eta arlo horretan gerta daitezkeen iruzurrezko

Artículo 19. Instrucción y resolución de las subvenciones de concurrencia competitiva.

Artículo 20. Instrucción y resolución de las subvenciones que se conceden mediante convocatoria pública pero no están sujetas a concurrencia competitiva.

Artículo 21. Instrucción y resolución de las subvenciones de concesión directa.

Artículo 22. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Abono de la subvención.

Artículo 23. Abono y pagos anticipados.

Justificación de la subvención.

Artículo 24. Justificación.

Procedimiento de gestión presupuestaria.

Artículo 25. Procedimiento de aprobación del gasto y pago.

Reintegro de las subvenciones.

Artículo 26. Reintegro.

Artículo 27. Procedimiento de reintegro.

Régimen sancionador.

Artículo 28. Concepto de infracción.

Artículo 29. Procedimiento sancionador.

Artículo 30. Sanciones.

Artículo 31. Concurrencia con proceso penal.

Artículo 32. Concurrencia con otros expedientes sancionadores.

Artículo 33. Daños en bienes públicos.

Publicidad.

Artículo 34. Publicidad. Obligaciones del Ayuntamiento y de las personas beneficiarias.

Interpretación.

Artículo 35. Interpretación.

Recursos.

Artículo 36. Recursos.

Disposición derogatoria.

Disposición final.

Anexo I. Relación de documentos autorizados por el Ayuntamiento de Astigarraga en la justificación de las subvenciones.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Una parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, con el objeto de dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas y entidades públicas o privadas.

El Ayuntamiento de Astigarraga tiene diferentes líneas de ayudas y subvenciones.

Desde la perspectiva económica, las subvenciones son una modalidad importante de gasto público y por tanto, deben ajustarse a las directrices de la política presupuestaria.

Desde una perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general.

En sentido amplio, la subvención es una categoría que engloba un conjunto de figuras de naturaleza jurídico-económica diversa, por lo que es necesario realizar un seguimiento y control efectivo.

La mejora de la gestión y el seguimiento de las subvenciones, la corrección de las insuficiencias normativas y el control de las

jokabideak kontrolatzea funtsezkoak dira gastu modalitatetik esleipen eraginkor eta efizienteak lortzeko eta dirulaguntzen politikek gero eta garrantzi handiagoa izateko eta aurrekontu-politikaren egungo orientazioarekin bateragarri egiteko.

Doktrina ia osoak eta Kontuen Auzitegiaren hamaika gomen-diok, araudien sakabanatzea eta hutsuneak direla eta dagoen ziurtasun-gabeziaren aurrean, problematika horri modu integra-lean helduko zion dirulaguntzen lege orokor bat eskatzen zuten, eta horixe egiten dute azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean Dirulaguntzen Lege Orokorra) eta horren garapen-erregelamenduak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartuak (aurrerantzean, Dirulaguntzen Erregelamendua) eta bestelako araudi ezargarriak.

Hori horrela, Astigarragako Udalak ordenantza baten bidez dirulaguntzen arlo guztia arautu nahi du.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

1. Ordenantza honen helburua da Astigarragako Udalak ematen dituen dirulaguntzen irizpideak eta emateko prozedurak finkatzea, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Dirulaguntzen Erregelamenduak ezartzen dutenaren eredura.

Dirulaguntza, ordenantza honen ondorioetarako, Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko edozein xedapen da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

— Ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

— Ematea lotuta egotea helburu zehatz bati, proiektu bat egikaritzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat hartzeari edota hainbat egoera aldi berean gertatzeari (eginda egon edo eginkizun izan), betiere onuradunak ezarri zaizkion betebeharrak material eta formalak betetzeko baldintza betez.

— Diruz lagundutako proiektu, ekintza, jokaera edo egoerak onura publiko edo herri-intereseko jarduera bat sustatzea edo xede publiko bat sustatzeko helburua izatea.

2. Udal-dirulaguntzen deialdi publikoetan edo, zuzenean eman behar denean, dagozkien hitzarmenetan, zehatz-mehatz mugatuko dira lortu nahi den xedea, baldintzak eta helburua.

2. artikulua. Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpoko laguntzak.

Ordenantza hau ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

— Aplikatzekoa den zerga -edo sektore-araudiak araututako propioak ez diren dirulaguntzak (hobariak, salbuespenak)-.

— Zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa jasotzen dituen zerbitzu publiko baten emakidadun bati emandako dirulaguntzak.

— Udalak bitarteko soil gisa jokatzen dueneko beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzak.

— Udalaren ekarriak erakunde hartzaileen jarduerak modu globalean diruz laguntzeko: erakunde autonomoak; enpresa-erakunde publikoak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, e.a., non Udalak ordezkapena duen eta urtero ekarpen ekonomikoak egiten dituen horien aurrekontuak hornitzeko.

— 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 5. xedapen gehigarrian (Udalen Federazioa eta Elkar-tea) aipatzen dituen elkarteen aldeko dirulaguntzak.

conductas fraudulentas que se pueden dar en este ámbito son esenciales para conseguir asignaciones eficaces y eficientes desde la modalidad de gasto y hacer compatible la creciente importancia de las políticas de subvenciones con la actual orientación de la política presupuestaria.

El Tribunal de Cuentas y un creciente sector de la doctrina han venido propugnando una regulación general en materia de subvenciones, que resolviese la situación de inseguridad jurídica y lagunas que subsistían en dicha materia por lo que se aprobaron la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre (en adelante Ley General de Subvenciones), y su Reglamento de desarrollo, aprobado mediante Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (en adelante Reglamento de Subvenciones), así como diversas disposiciones normativas aplicables.

Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga pretende regular mediante una ordenanza todo el ámbito subvencional.

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

1. La presente ordenanza tiene por objeto regular y fijar los criterios y el procedimiento de concesión de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Astigarraga, al amparo de lo que establece la Ley General de Subvenciones y el Reglamento de Subvenciones.

A los efectos de la presente ordenanza, se entiende por subvención toda disposición dineraria que realice el Ayuntamiento de Astigarraga a favor de personas públicas o privadas y que cumpla los siguientes requisitos:

— Que la entrega se realice sin contraprestación directa de las beneficiarias.

— Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo la beneficiaria cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

— Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública de interés local.

2. En las convocatorias públicas de subvenciones municipales o, cuando proceda la concesión directa, en los correspondientes convenios, se delimitará con precisión el objeto, condiciones y finalidad que, en su caso, se persiga.

Artículo 2. Ayudas excluidas del ámbito de aplicación de la presente ordenanza.

La presente ordenanza no será de aplicación en los siguientes casos:

— Subvenciones impropias reguladas por la legislación tributaria o sectorial aplicable (bonificaciones, exenciones).

— Subvenciones otorgadas a la concesionaria de un servicio público que las recibe como contraprestación del funcionamiento del Servicio.

— Subvenciones concedidas por otras Administraciones en las que el Ayuntamiento actúe como simple intermediario.

— Aportaciones del Ayuntamiento, destinadas a financiar globalmente las actividades de los entes receptores: Organismos autónomos; entidades públicas empresariales; consorcios; mancomunidades; fundaciones; asociaciones, etc. en los cuales está representada el Ayuntamiento y a los que anualmente, se hacen aportaciones económicas para financiar sus presupuestos.

— Subvenciones a favor de las asociaciones a que se refiere la disposición adicional 5.ª de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local (Federación y Asociación de Municipios).

— Korporazioan ordezkaturako talde politikoen funtzionamendu-gastuak artatzeko dirulaguntzak.

— Udaleko Gizarte Zerbitzuak gizarte-premiak asetzeko izapidetzen dituzten premiazko beharrei erantzuteko laguntzak.

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 2.4 artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erreglamendua onartzen duenaren 2.4 artikuluan ezarritako gainerako kasuak.

3. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

Dirulaguntzak ematea eta Udalaren eta onuradunaren arteko harreman juridikoa (pertsona fisikoak, legez eratutako elkarteak eta fundazioak, eta ordenantza honen 12. artikuluan aipatzen diren taldeak) udal-ordenantza honen arabera arautuko da, eta bertan xedatzen ez dena arautuko dute Dirulaguntzen Lege Orokorrak, Dirulaguntzen Erreglamenduak edo horiek ordeztzen dituen araudiak.

4. artikulua. Dirulaguntzen izaera.

Ordenantza orokor honek araututako dirulaguntzek borondatezko izaera dute, ez dute ondorengo urteetarako beste dirulaguntza batzuk lortzeko eskubiderik sortzen (urte anitzeko gastu gisa eman ezean) eta ezin dira aurrekari gisa alegatu.

Dirulaguntzak emateko baldintza gisa duen interes orokorreko helburua betetzeari atxikita daude eta itzulezinak dira, ematen diren unean ezarritako baldintza eta kargak ez betetzearen ondoriozko itzulketari kalterik egin gabe.

Edozein kasutan, Udala eta bere mendeko erakundeak libre geratuko dira diruz lagundutako pertsonen edo erakundeek egin behar dituzten jardueretatik sortutako erantzukizun zibiletatik eta merkataritzako, laneko edo edozein motako erantzukizunetatik.

DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

5. artikulua. Irizpide orokorrak.

Ordenantza Orokor honek aipagai dituen dirulaguntzak irizpide hauen arabera kudeatuko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objetibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- b) Efikazia Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzerakoan.
- c) Efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko, 1/2023 Legegitutzako Dekretuak 23. artikuluan dionez, oro har, dirulaguntzek publikoetan genero-ikuspegia txertatu behar dute.

Dirulaguntzak deialdi ireki eta publiko bidez edo zuzeneko prozeduraz emango dira.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

Dirulaguntzak eman aurretik, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Organo administratibo emaileak eskuduna izan behar du.
- b) Dirulaguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ekonomi-koei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatea.

— Subvenciones a los grupos políticos representados en la Corporación para atender sus gastos de funcionamiento.

— Ayudas para atender necesidades básicas que se tramiten desde el departamento de servicios sociales para satisfacer necesidades de carácter social.

— Los demás supuestos recogidos en el artículo 2.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 2.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 3. Normativa aplicable.

La concesión de las subvenciones y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y la beneficiaria (personas físicas, asociaciones y fundaciones legalmente constituidas, y las agrupaciones de a las que se refiere el artículo 12 de la presente ordenanza) se regirá por la presente Ordenanza Municipal, y para lo no dispuesto en la misma por la Ley General de Subvenciones, el Reglamento de Subvenciones, o la normativa que la sustituya.

Artículo 4. Carácter de las subvenciones.

Las subvenciones reguladas por la presente Ordenanza General tienen carácter voluntario, no generan ningún derecho a la obtención de otras subvenciones en años posteriores (salvo que se hayan concedido con carácter de gastos plurianuales) y no se pueden alegar como precedente.

Las subvenciones están sujetas al cumplimiento de la finalidad de interés general a que se condicione el otorgamiento y tienen carácter no devolutivo, sin perjuicio del reintegro inherente al incumplimiento de las condiciones y cargas impuestas en el acto de concesión.

En cualquier caso, el Ayuntamiento y las entidades de él dependientes quedarán exentas de cualquier responsabilidad civil, mercantil, laboral o de cualquier clase derivada de las actuaciones a que queden obligadas las personas o entidades subvencionadas.

PROCEDIMIENTO Y GESTIÓN DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 5. Principios generales.

La gestión de las subvenciones a que se refiere la presente Ordenanza General se efectuará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.
- d) De acuerdo con el artículo 23 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, con carácter general, se debe incorporar la perspectiva de género.

Las subvenciones se concederán mediante convocatoria abierta y pública o concesión directa.

Artículo 6. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.

Serán requisitos previos al otorgamiento de subvenciones, los siguientes:

- a) La competencia del órgano administrativo concedente.
- b) La existencia de crédito adecuado y suficiente para atender a las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de la subvención.

c) Eman nahi den dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatuta egon behar du eta, hala badagokio, aplikatzen ari den aurrekontuko Dirulaguntzen eranskinean.

d) Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea, aplikagarriak diren arauen arabera.

e) Eduki ekonomikoa duten administrazio-egintzen aurretzio fiskalizazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurreikusitako baldintzetan.

f) Organo eskudunak gastua onartzea.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, beste Administrazio publiko batiuek helburu berarekin emandako dirulaguntzekin edo izandako beste diru sarrerekin batera, ezingo du diruz lagundutako ekin-tzaren kostua gainditu.

Ezingo da, deialdian zehazten dena baino zenbateko handi-goko dirulaguntzarik eman, Dirulaguntzen Erregelamenduan au-reikusitako salbuespenetan izan ezik.

8. artikulua. Dirulaguntzeko gastuak.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz laguntzeko gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta dirulaguntzen oinarrietan eta zuzeneko dirulaguntzetan onarpen ebazpenean eta/edo hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Epe zeha-tzik ezarri ez bada, gastuak dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira.

2. Egindako gastutzat hartuko da dirulaguntzaren araudi erregulatzaileak zehaztutako justifikazio-epea amaitu aurretik ordaindua izan dena.

Legean aurreikusitako diruz laguntzeko gastuez gain, finan-tza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notaritza- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazio-ko espezifikoak eta dietak diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta beti ere oinarrietan horrela aurreikusten bada.

Diruz laguntzeko gastuaren zenbatekoak obra egikaritzeko kostuaren kasuan 30.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean, edo 12.000 eurokoa ekipamendu-ondasunez hornitzeko edo aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuak ema-teko kasuan, onuradunak gutxienez, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik. Diruz lagundu daitez-keen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek eman edo ematen dituzten erakundearen kopuru nahikoa ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin denean izan ezik, eta aukera hori dirulaguntzaren oinarri arautzaileeta (norgehia-gokako dirulaguntza bada) edo dagokion emate-akordioan edo hitzarmenean (zuzeneko dirulaguntza bada) jasota dagoenean izan ezik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko do-kumentazioarekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaerarekin batera ekarri beharko dena) efizientzia eta ekono-miako irizpideen arabera egingo da eta, proposamen ekono-mikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berariaz justifikatu beharko da erabakia.

9. artikulua. Aurrekontua kontsignatzea.

1. Dirulaguntzak gastu publikotzat joko dira eta horien era-ginkortasuna aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia egoteari bal-dintzatuta geratuko da.

c) La inclusión de la subvención en el Plan Estratégico de Subvenciones municipal y, en su caso, en el anexo de Subvencio-nes correspondiente al presupuesto en curso.

d) La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con las normas que resulten de aplicación.

e) La fiscalización previa de los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Enti-dades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

f) La aprobación del gasto por el órgano competente.

Artículo 7. Cuantía de las subvenciones.

El importe de la subvención, junto con el de las subvenciones concedidas con la misma finalidad por otras administraciones públicas y otros ingresos, no podrá sobrepasar el coste de la ac-tividad subvencionada.

No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria, salvo excepciones contem-pladas en el Reglamento de Subvenciones.

Artículo 8. Gastos subvencionables.

1. Se considerarán gastos subvencionables, a los efectos previstos en esta ordenanza, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases de las subvenciones y en las subvenciones directas en la resolución y/o convenio. Cuando no se haya establecido un plazo concreto, los gastos deberán realizarse antes de que finalice el año natural en que se haya concedido la subvención.

2. Se considerará gasto realizado el que ha sido efectiva-mente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado por la normativa reguladora de la sub-vención.

Además de los gastos subvencionables previstos en la Ley, los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos y dietas son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensa-bles para la adecuada preparación o ejecución de la misma, y siempre que así se prevea en las bases.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 12.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedoras, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien. Salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, y esa opción esté contemplada en las bases regula-doras de la subvención (si se trata de una subvención de concu-rrencia competitiva) o en el acuerdo de concesión y/o convenio correspondiente (si se trata de una subvención directa).

La elección entre las ofertas presentadas, que deberá apor-tarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la sub-vención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y econo-mía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ven-tajosa.

Artículo 9. Consignación presupuestaria.

1. Las subvenciones tendrán la consideración de gastos pú-blicos y la efectividad de las mismas quedará condicionada a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente.

Udalak aukera izango du deialdi bateko kreditua handitzeko, horrela aurreikusten bada dirulaguntzaren oinarrietan, beti ere horretarako beharrezkoak diren tramiteak izapidetu ondoren.

Era berean, zuzeneko dirulaguntza baten kreditua handitu ahal izango da, baldin eta hori aurreikusita badago dirulaguntzen plan estrategikoan eta aplikatzen ari den aurrekontuko Dirulaguntzen eranskinean. Bestela, alde aurretik dokumentu horiek aldatu egin beharko dira.

2. Dirulaguntzen emateagatik sortutako eduki ekonomikoko betebeharrak artatzeko aurrez aurrekontuen aldaketa bat behar bada, dagokion espediente abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuena, edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako moduan izapidetuko da.

10. artikulua. *Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldibereketasuna beste dirulaguntza batzuekin.*

Udalak emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, salbu eta deialdiaren oinarriek eta/edo, zuzeneko dirulaguntzen kasuan, akordio edo hitzarmenek kontrakoa ezartzen badute.

Bateragarriak diren kasuetan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio Udalari dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

11. artikulua. *Deialdi ireki edo publiko bidez ematea.*

1. Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak. Diru-laguntzak emateko ohiko modua da.

Prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunak onartuta deialdi publikoaren bidez eta oinarri arautzaileak onartu ondoren. Ondorio horietarako, deialdiak gutxienez izango du Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.2 artikuluan aipatzen den edukia.

Aukeratze-prozesu honetan ezarritako epean aurkeztutako eskaera guztiak batera aztertuko dira, prozedura bakar batean, eta administrazio egintza bakarrean oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen duen eskaeraren alde edo dituzten eskaeren alde ebatziko da, eta aldi berean oinarrietan bertan finkatutako balorazio-irizpideak (horien artean beti egongo dira hizkuntza-eta berdintasun-irizpideei buruzkoak, bakoitza gutxienez puntu guztien % 10ekin baloratuko direnak) duten eskaeren alde.

Jarduera berak ez du dirulaguntzarik jasoko bi urtez segidan, oinarrietan kontrakoa aurreikusten ez bada.

Dirulaguntza emateko organo eskudunak, kasu berezietan, aukeratze-prozesua eman gabe edo aurreikusitako zenbateko guztia edo aurrekontuko partidari edo bere atxikitze-poltsari dagokion kreditu erabilgarria agortu gabe utzi ahal izango du, arrazoiak.

Salbuespen gisa, eta kreditua handitzea ezinezkoa denean (8. artikuluan aurreikusita dagoen bezala), organo eskudunak dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko osoa dirulaguntzen onuradunen artean hainbanatu ahal izango du.

2. Oinarrietan ezarritako baldintza espezifikoak betetzea-gatik ematen diren dirulaguntzak, eta dirulaguntza mota bererako aurkeztu direnak alde batera utzita izapidetzen direnak.

El Ayuntamiento podrá incrementar el crédito de una convocatoria si así se prevé en las bases de la subvención, siempre que se lleven a cabo los trámites necesarios para ello.

De la misma manera podrá incrementar el crédito de una subvención directa, si ello está previsto en el Plan Estratégico de Subvenciones y en el anexo de Subvenciones del presupuesto en curso. De lo contrario previamente se deberán de modificar los mismos.

2. Si para atender las obligaciones de contenido económico que se deriven de la concesión de las subvenciones fuese preciso una previa modificación presupuestaria, el correspondiente expediente se tramitará en la forma establecida en la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, o en la normativa vigente en cada momento.

Artículo 10. *Límite de la financiación compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones.*

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento, serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, salvo que las bases de la convocatoria y/o los acuerdos o convenios en el caso de las subvenciones directas establezcan lo contrario.

En el caso de ser compatibles, la beneficiaria deberá comunicar al Ayuntamiento la obtención de las citadas subvenciones, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas tan pronto como se conozcan y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

El importe de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la entidad beneficiaria.

Artículo 11. *Concesión mediante convocatoria pública.*

1. Subvenciones por concurrencia competitiva. Es la forma ordinaria de concesión de las subvenciones.

El procedimiento se iniciará siempre de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y previa aprobación de las bases reguladoras. A estos efectos, la convocatoria tendrá, como mínimo, el contenido a que hace referencia el artículo 23.2 de la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones.

En este proceso de selección se examinarán conjuntamente, en un solo procedimiento, todas las solicitudes presentadas dentro del plazo establecido, y se resolverá en un único acto administrativo a favor de la solicitud o solicitudes que cumplan los requisitos previstos en las bases y obtengan, al mismo tiempo, una mayor puntuación en aplicación de los criterios de valoración fijados en las propias bases, entre los que siempre figurarán los relativos a los criterios lingüísticos y de igualdad, que se valorarán cada una con un mínimo de 10 % del total de puntos.

La misma actividad no será objeto de subvención durante dos años consecutivos, salvo que las bases prevean lo contrario.

El órgano competente para la concesión podrá, motivadamente, dejar desierto el proceso de selección o no agotar el importe total previsto o el crédito disponible de la correspondiente partida presupuestaria o de su bolsa de vinculación.

Excepcionalmente, y cuando no sea posible ampliar el crédito (tal y como está previsto en el artículo 8), el órgano competente podrá procederse al prorrateo, entre las beneficiarias de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

2. Subvenciones que se concedan por cumplirse los requisitos específicos establecidos en las correspondientes bases, y que se tramitarán con independencia de aquellas otras que se presenten para la misma línea de subvención.

Oinarrietan besterik ezarri ezean, dirulaguntza eskabide horiek aurkeztu ahala izapidetu eta onartuko dira. Lehentasun-ordena ezartzeko, eskabidea oinarrien arabera behar bezala aurkeztu den eguna hartuko da kontuan.

Oinarrietan aurreikusten bada eskabide horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzean onartu eta ordainduko direla, eta esleitutako aurrekontu-partidaren zenbatekoa ez bada nahikoa ordainketa guztiak egiteko eta ezin bada kreditua handitu, organo eskudunak dirulaguntzara bideratutako gehieneko zenbateko osoa dirulaguntzaren onuradun guztien artean hainbanatuko du.

12. artikulua. Zuzeneko dirulaguntzak.

1. Dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira honako kasu hauetan:

a) Astigarragako Udaleko aurrekontu orokorrean norbaiten izenean aurreikusita daudenak, dirulaguntza emateko hitzarmen edo akordioetan aurreikusitakoaren arabera.

b) Administrazioari dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaren zenbatekoa lege mailako arau batek agindu dionean, araudi propioaren arabera aplikatu behar zaien prozedura jarraituko behar baita.

c) Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten beste dirulaguntzak, edo bere deialdi publikoa eragotzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

2. Zuzeneko dirulaguntza bat emateko, ezinbestekoa izango da hura udal aurrekontuan eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota egotea; bestela, aldeztu aurretik dagozkion aldaketa-espedienteak izapidetu beharko dira. Horretarako, dagozkion administrazio-unitateak eskaera bidaliko dio udaleko kontu-hartzaileari.

13. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntzaren onuraduntzat joko dira deialdien arabera eta legeak ezartzen dituen muga barruan laguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituztenak.

Elkarteek eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko, dagozkien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki behar dituzte.

Onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen elkar-teak, ondasun erkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo dirulaguntza emateko egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, beti ere deialdiaren oinarrietan aurreikusten bada.

Dirulaguntza hori ezingo dute eskuratu, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonen edo erakundeek. Halaber, ezingo dituzte dirulaguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.

Halaber, -Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko, 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraiki- ezingo dute dirulaguntza jaso sexuan oinarrituta edo aipatutako legearen 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jardueren, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko eta juridikoen, dagozkion zehapenean eza-

Salvo que en las bases se establezca lo contrario, estas solicitudes se tramitarán y aprobarán según se presenten. A efectos de establecer el orden de prelación, se tendrá en cuenta la fecha en la que la solicitud se ha presentado correctamente de acuerdo con las bases.

Cuando las bases prevean que dichas solicitudes serán aprobadas y pagadas a la finalización del plazo de presentación de solicitudes y la cuantía de la partida presupuestaria asignada no sea suficiente para cubrir todos los pagos y no se pueda incrementar el crédito, el órgano competente procederá a prorratear el importe global máximo destinado a la subvención entre todas las beneficiarias de la subvención.

Artículo 12. Concesión directa.

1. Las subvenciones podrán otorgarse directamente en los siguientes casos:

a) Las previstas nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Astigarraga, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.

b) Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesta a la administración por una norma legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su normativa propia.

c) Aquellas otras subvenciones en las cuales se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, y otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

2. Para conceder una subvención directa será imprescindible que la misma esté prevista en el presupuesto municipal y en el Plan Estratégico de Subvenciones, en caso contrario se deberá tramitar previamente los correspondientes expedientes de modificación. Para lo cual la unidad administrativa correspondiente cursará la solicitud a la interventora municipal.

Artículo 13. Beneficiarias.

Tendrán la consideración de beneficiarias aquellas que reúnan las condiciones para poder solicitar la misma en el marco de las convocatorias y dentro de los límites legalmente establecidos.

Las asociaciones y fundaciones para poder ser beneficiarias de subvenciones tendrán que estar inscritas en el correspondiente registro oficial y tener sus datos actualizados.

Podrán acceder a la condición de beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención siempre que se prevea en las bases de la convocatoria.

No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que, en virtud de la normativa vigente, tengan limitado o suprimido ese derecho. Asimismo, no podrán obtener subvenciones quienes hayan sido sancionadas, por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

Tampoco podrán acceder -de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres- ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1 de la citada ley, ni aquellas personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de

rritako aldian. Ez eta, Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar izanik ere, halakorik ez dutenak, ezta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.

14. artikulua. *Organo eskuduna.*

Dirulaguntza ildo bakoitzerako berariazko deialdia egitea eta ebaztea, bai eta zuzeneko dirulaguntzak ematea ere, alkateari dagokio, edo horrek berezko eskumen hori eskuordetzen dion organoari.

15. artikulua. *Prozeduraren hasiera.*

Dirulaguntzak deialdi bidez emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, alkateak onartutako deialdiaren bidez, edo eskumenak eskuordetzen dizkion organoak onartutako deialdiaren bidez, eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 23. artikuluan eskatutako edukia izango du, gutxienez.

Zuzeneko dirulaguntzak emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera hori egiteko, behar besteko aurreapenarekin jakinarazi beharko zaio udalari dirulaguntza eskatzeko asmoa duela, administrazioak baloratu eta udal-aurrekontuan eta dirulaguntzen plan estrategikoan sartu ahal izan dezan.

16. artikulua. *Eskaerak.*

1. Deialdi publikoko diru-laguntzen eskaerak.

